



## TESTUINGURUA

20 urte igaro dira Nazio Batuen 1.325 ebazpena onartu zenetik. Ebazpen horretan, gatazkan dauden aldeei eskatzen zaie emakumeen eskubideak errespetatu ditzatela eta bake-negoiazioetan eta gatazkaren osteko berreraikuntzan parte har dezatela.

Ordutik, aurrerapen txikiak izan dira, baina, Nazio Batuen Erakundeak emakumeei, bakeari eta segurtasunari buruz egindako azken txostenak aitortzen duenez, emakumeak, bitartekaritzan eta bakearen finkapenean funtsezko eragileak izan arren, bake-prozesu formaletatik eta botere-egituretatik kanpo geratzen dira neurri handi batean.

Testuinguru horretan, aukera hau baliatzen dugu prozesu formalekiko paraleloak diren espazio eta mekanismoetatik parte hartzen duten emakume guztien lana gogorarazteko eta balioesteko. Egoki deritzogu bake-prozesuetan protagonista izan diren, diren eta izango diren emakumeen esperientzia ikusteari. Gatazka oso ezberdinetako emakumeak, muga, arraza, erlijio, baldintza, kultura eta hizkuntzatik urrunduak, baina guztiok batzen gaitu bakearen aldeko militantziak.

Asmo horrekin, jardunbide egokien protokolo bat aldarrikatzen dugu, bakea reaikitze eta lortze jardunean emakumeen parte-hartzea bermatuko duena. Emakumeen ekarpena ezin da mugatu biktima gisa dituzten testigantzak jasotzera; gure ekarpenak bakearen protagonista izan behar du, emakumeok ere eragile aktiboak baikara demokrazian eta gizarte-kohesioan sakontzeko, horiek baitira bakea sendotzeko funtsezko zutabeak.



## ADIERAZPENA

1. Emakumeok bakearen aldeko eragile aktiboak izan behar dugu, eta itxaropenezko etorkizuna argitu nahi duten gatazkak konpontzeko prozesu guztietan ezinbesteko partaide
2. Prozesu horietan ezarri beharreko metodologia elkarguneak bilatzea izango da, nazio, etnia, politika edo erlijio mailako banaketa-ildoak gaindituz eta desberdintasunetan soilik sakontzen duten jarreretan erori gabe; topaketaren eta elkarrizketa erabakitzailearen aldeko militantzia, alderdi-lerroetatik harago
3. Horretarako, beti entzun behar da besteek duten egia, eta edozein gatazka konpontzeari ekin behar zaio, demokrazia gehiago eta hobea oinarri hartuta. Proiektu politiko guztiak prozedura demokratiko eta politiko itunduen bidez defendatu eta gauzatu ahal izatea ahalbidetuko duen demokrazia.
4. Bizikidetzak izan behar du edozein gatazka konpontzen lagundu behar duen helburua. Eta prozesu horretan ere, emakumeok lan egin behar dugu gertatutakoaren kontakizun inklusiboa eta egiazkoa egiteko, etorkizun partekatu baterako oinarriak senti ditzan. Edozein gatazkaren zatiketak eta minak izan behar du orainaren eta etorkizunaren elkarrizketa eta ulermena eraikitzeke ahalmena
5. Bakea finkatzeak bake positiboaren aldeko apustua egitea dakar. Hau da, bakea ez da indarkeriarik eza bakarrik. Bakeak demokrazia, justizia soziala, eraldaketa esan nahi du. Alde horretatik bakea ulertzeko gai bagara bakarrik izango gara gai norgehiagoka gehienak gainditzeko.



## SUSTATZAILEAK

GEMMA ZABALETA  
AINHOA AZNAREZ  
JONE GOIRIZELAIA  
ELISABETTE PIÑOL  
KONTXI BILBAO  
ESTHER LARRAÑAGA  
ONINTZA LASA  
NEKANE ALTZELAI

## SINATZAILEAK

ARANTXA AGOTE  
KORO AGOTE  
LOIONE AGUERGARAY  
IRATXE ALVAREZ  
ONINTZE AMEZAGA  
NEREA ANTIA  
MARI JOSE ARANA  
GARBIÑE ARANBURU  
LEIXURI ARRIZABALAGA  
ITXASO ATUTXA  
ELENA BARTOLOME  
PATRIZIA BELEZ  
ESTEFANIA BELTRAN DE HEREDIA  
AINHOA BEOLA  
IRUNE BERASALUZE



MARTINE BISAUTA  
GARBIÑE BIURRUN  
ARANTZA CAMPOS  
LOLITA CHAVEZ  
MERTXE COLINA  
LEIRE CORRALES  
ISABEL EGUIGUREN  
ARANTZA ELIZONDO  
NEKANE ERAUSKIN  
BEGOÑA ERRAZTI  
ANA ETXARTE  
AINHOA ETXEBARRIA  
AINTZANE EZENARRO  
ANAIZ FUNOSAS  
KARMEN GALDEANO  
LOLI GARCIA  
KORO GARMENDIA  
KIZKITZA GIL DE SAN VICENTE  
IZASKUN GUARROTXENA  
ITZIAR HERNANDEZ  
MONIKA HERNANDO  
MADDALEN IRIARTE  
NAGORE ITURRIOZ  
MIREN IZASKUN LANDAIDA  
AITZPEA LEIZAOLA  
LOURDES LOZADA  
MIREN ARANTZA MADARIAGA  
HELENA MALENO  
EVA MARTINEZ HERNANDEZ  
EIDER MENDOZA  
BEATRIZ MOLLE  
JOLIE MOYO



IZASKUN MOYUA  
ANA OTADUI  
PATRICIA PERALES  
ANA PEREZ  
PURI PEREZ  
ELIXABETE PIÑOL  
BEL POZUETA  
RAFAELA ROMERO  
BAKARTXO RUIZ  
ARANTXA RUIZ  
BAKARTXO TEJERIA  
TERESA TODA  
REBEKA UBERA  
MARGARITA URIA  
ARANTXA VAZQUEZ  
MIREIA ZARATE